

Aberri Egunak «borrokarako eguna» izan behar duela aurten dio HBk

Barakaldon antolatu duen ekitaldiaren berri eman zuen atzo prentsaurrean

Herri Batasunak Barakaldon ospatuko du Aberri Eguna 'Gure etorkizun ekonomikoa, independentzia' lemapean. Euskal Herriko krisi egoera dela medio aurtengo edizioak «borroka eta erreibindikaziorako eguna» izan behar duela uste du HBk eta lantoki guztietan ikurrina jartzea eskatu du.

BILBO

Ekonomi burujabetza ardatz nagusia izango duen 1993ko Aberri Eguna ospatzeko krisiaren ondorioak bereziki jasaten ari den Bizkaiko Ibar Ezkerra aukeratu zuen Herri Batasunak duela aste batzuk. Bertan bilduko den jendetza hobekien jaso zezaketen lekuak aztertu ondoren, Barakaldon egitea erabaki dutela jakitera eman zuen atzo alderdi abertzaleak.

Hasierako asmoa Ibar Ezkerretik atera eta ibilbidea Bilbon ekitaldi politiko batekin amaitzea bazen ere, azkenean ospakizun nagusia Barakaldon egingo da. Goizeko hamarretan bi lerro abiatuko dira Bilbo eta Santurtzitik eta Barakaldoko San Vicente plazan batu ondoren manifestaldia egingo da eta amaieran Jon Idigoras HBko diputatuak hitzaldia emango du.

Bilduko den jendetza ahalik eta erosoan egon dadin beharrezko azpiegitura (aparkalekuak, autobusak...) egoki moldatzeaz arduradu da egunotan HB, Karlos



Jon Idigoras eta Carlos Rodriguezek azaldu zuten HBren Aberri Eguna.

SIMAL

✓ Goizeko hamarretan bi zutabe abiatuko dira Bilbo eta Santurtzitik eta Barakaldoko San Vicente plazan batu ondoren manifestazioa egingo da.

Rodriguez ekonomia arloko buruak azaldu zuenez.

GIZARTE ITUNAREN ALDE Jon Idigoras HBko bozeramailearen esanetan, Euskal

Herriko ekonomiaren egoera «kaotikoa» dela eta, aurtengo Aberri Egunak «borroka eta erreibindikaziorako dimentsioa hartzen du». Bere ustez, «beharrezkoa egiten da gizarte eragileen batasuna eremu politiko eta

ekonomiko bat eratzeko eta horren bidez Madrilekiko zilbor hestea hausteko». Ildo horretan, ELA, CCOO eta LAB sindikatuen arteko akordioa abiapuntutzat hartuz gizarte hitzarmen zabal, ez Ardanza lehendakaria egiten saiatu den bezalakoa, lortzearen aldekoa da HB. Ardanza-aren ekimenak «arazoa konpondu baino gizarte eragileak geldiarazteko asmoa» bazuen ere, HBk eragileak bildu eta Madril, Gas-

teiz eta Iruñeko gobernuen aurrean «intsumisioa» indarrean jartzea proposatzen du.

«Euskal Herriaren salbazio ekonomikoa subiranotasun handiagoren menpe dagoela adierazteko» Aberri Egunean lantoki guztietako puntu gorenean ikurrina jartzeko eskaera egin du HBk. Herri honen etorkizuna «ezin dugu egunero ustelkeria politiko eta ekonomikoan erortzen diren Gasteiz eta Madrileko gobernu eta zenbait instituzio eta alderdiren esku utzi», esan zuen Idigoras.

Eusko Jaurlaritzaren botere politikoa «errealitatea» izan dadin eskatu zuen ekonomiaren planifikazioa egiteko eta lanpostuak eta industria sortzeko.

Portuondo ez zen txanpon-makinatarako baimenen auzian deklaratzera azaldu

JON ESKISABEL / DONOSTIA

Txanpon-makinen auzian Fernando Breñosa epailearen aginduz atzo deklaratu behar zuten hiru pertsonetatik bat bakkarik, Alfredo Peña, azaldu zen Donostiako Auzitegian. Jose Joaquin Portuondo Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskari departamenduko zuzendari ohiak gaixo zegoela argudiatu zuen ez agertzeko eta Aitor Alcalde Aguirrezabal ertzainak nahaske-ta bat zitazioan. Biak maiatzaren 4ean deklaratzera deitu ditu berriro Donostiako Auzitegiko 3 zenbakiko Instrukzio Epaitegiak.

Hiru lagun hauek Juan Jose Yunquera Fernandez 'makinero' eta Euzko Alderdi Jeltzaleko kideari txanpon-makinatarako legez kanpoko baimenak saltzeko operazioan parte hartzeaz aku-

satuta daude. Garai hartan, Jaurlaritzako Joko eta Ikuskari departamenduko zuzendaria eta zuzendariordea ziren Portuondo eta Peña, hurrenez hurren.

Yunquerak joan den astean epailearen aurrean deklaratu zuenez, Erandion dituen ostalaritza lokaletako txanpon-makinak ustiatzeko epea amaitzeaz zegoela, Portuondorekin bildu zen Lakuan eta honek arazoa konpontzeko Agustin Elorriaga Llona EAJko kidearekin harremanetan jartzeko gomendioa eman zion. Elorriagak legez kanpoko 15 lizentziak ordaintzeko baldintzak —hiru milioi pezeta (150.000 libera) metalikoan eta gainontzekoa 200.000 pezetako 24 letretan— azaldu zizkiola deklaratu zuen Yunquerak. Lizentziak Peñak entregatu zizkion eskuan Lakuan bertan, Elorriaga

Llona bertan zela.

Yunqueraren arabera, Bartzelonatik heldutako dokumentu zuriak Elorriagak betetzen eta sinatzen zituen Rosa Sola 'Insu-mec' joko enpresako akziodunaren izenean.

Bere deklarazioan Peñak ukatu egin zuen Yunquera eta Sola ezagutzen dituenik baina ez zuen gezurtatu Lakuan egindako bilera hala nola Yunquerak baimenak jaso zituenik. Halaber, Elorriaga Llona Insumeceko garentea zela eta lizentzia guztien tramitazioa honen bidez egiten zirela esan zuen Eusko Jaurlaritzako funtzionario ohiak, egunkari honek iturri judizialetatik jakin ahal izan duenez.

Alcalderen aginduz Yunqueraren txanpon-makina guztiak prezintatu zituztenik ere baztertu egin zuen Peñak, eta Alcalde



Mikel Mendizabal.

A.G.

brigadako kidea zela esatera mugatu zen. Deklarazioan zehar epaileak behin baino gehiagotan atentzioa deitu behar izan zion Peñari.

Elorriaga Llonak eta Rosa Solak gaur deklaratu beharko dute Donostiako Auzitegian.

Jaurlaritza ez da eraginkorra EAEko biztanle gehienek ustez

BILBO

Euskal Autonomi Erkartearen biztanle gehienek uste dute Eusko Jaurlaritzak ez duela eraginkortasunik erakutsi, CIS erakundeak egin duen inkesta baten arabera, 'El Diario Vasco' eta 'El Correo español' egunkariak atzo argitaratu zuten. Inkesta hori iazko azaroan egin zuen CISek, boto asmoari buruzko ikerketarekin batera.

Hiru galdera multzoren inguruan emandako erantzunen berri ematen zuten atzoko edizioan aipatutako egunkariak. Bata sentimendu nazionalistaz, beste bat Gasteizko Gobernuaren eraginkortasunaz eta hirugarrena Estatuaren antolaketa.

Inkestaren artean, gehiengoak (% 52,7) uste du Eusko Jaurlaritzak ez duela erakutsi eraginkortasunik. Ehuneko 28,6k, ordea, uste dute erakutsi egin duela eraginkortasuna. Inkestatu gehienek ustez, egoera politikoa «txarra» da eta «duela hiru urte baino txarragoa».

CISen azterketaren arabera, % 47,9k uste dute Euskadi «erregioa» dela eta % 33,4ek «nazioa». Estatuaren antolaketa egokiaz galdetu zaienean, Estatu autonomikoaren alde agertu dira inkestaren % 37,6. Araban, % 54,7 daude aukera honen alde, Gipuzkoan % 28,6 eta Bizkaian % 32,0. Multzo handi batek autonomia handiagoaren alde dago, Araban % 15,9, Gipuzkoan % 29,3, eta Bizkaian % 19,3. Beste multzo bat independentziaren posibilitatea onartuko lukeen Estatu baten alde agertu da: Araban, % 9,2, Gipuzkoan % 22,7, eta Bizkaian % 18,9.

Herritarren kezka nagusiei buruzko atalean, langabezia ageri da lehen tokian (% 85entzat da lehen arazoa). Ondoren, droga, terrorismoa, ekonomi krisia, eta inbertsiorik eza ageri dira.

Beste atal batean, EAEko politikariek lortzen duten puntuazioa azaltzen da. Puntuaziorik onena Jose Antonio Ardanzak (5,44) lortu du. Atzetik, Xabier Arzalluz (4,88), Bandres (4,28), Garaikoetxea (4,15), Jaurregi (3,43) eta Idigoras daude.